



LIBURUTXOA

Jose Ignazio Arana

Iturria: *Jesusen Biotz Sagraduco Billera-Santu edo Congregacioaren gañeco gauza cerbaitzuec daczquien Liburuchoa*. Viuda de Egaña e Hijos, 1870.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AranaJILiburutxoa.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**JESUSEN BIOTZ SAGRADUKO
BILLERA-SANTU
EDO KONGREGAZIOAREN GAÑEKO
GAUZA ZERBAITZUEK DAKAZKIEN
LIBURUTXOA**

Obispo Januaren baimenarekin

A.M.D.G.

BITORIA:

Imprenta, L. y L. de la Biuda de Egaña e hijos
1870



Por el presente concedo á Vd. la licencia que tiene solicitada para imprimir el opúsculo escrito en idioma vascongado que lleva por título *Jesusen Biotz Sagraduko Billera-Santu edo kongregazioaren gañeco gauza zerbaitezuec dakazkien liburutxo*, mediante á que, examinado y censurado por mi órden, nada contiene que se oponga á la fé y á las buenas costumbres, previniendo á Vd. que antes de proceder á la expedición de los ejemplares impresos, remita uno á mi Secretaría de Cámara, solicitando nueva licencia.

Dios guarde á Vd. muchos aios. Vitoria 4 de Enero de 1870.—
Diego MARIANO, Obispo.

Sr. D. José Ugarte, Presbítero Beneficiado de OÑATE.

LENENGO PARTEA

JESUSEN BIOTZARI JAYERA TA ESKAERAK

Sartu aurrerako jakinbide edo oarkerak

1. Erromako *Sancta Maria ad Pineam* deritzan Elizan, mundu fedeo-sodun guziko kristau leyalentzako, lege eta bidez ipiña arkitzen da Bilerasantu au; eta bere egitekoa da (duen izenak ere dionez, eta argiago oraíndik emen gero ezarriko dan, beraganatzeko orazio edo otoitzetik igerri leikeanez), Jesu-Kristo gugatik gurutzean illaren, eta bere Biotz irazeki, aldareko Sakramentu guziz Santuan gugatik amorez sutua dagoanaren gloria geyago ta geyago aurrerazitzea ta geitzea; eta amorezko misterio edo ezkutamen onetan egiten zaizkan ez-bearrak ta txarkeriak onez ordaintzea.

2. Billera-santu onetan inskribatuak daudenai ezarritzen zaiyeten eginbearra da, egunero *Aita-gurea*, *Abe-Maria*, eta *Kredo bat*. Jesusen Biotz-done edo Sagratuari jayaraz erreztatzea, esanaz gañera biotzez otoitzalditxo edo oraziotxo labur au:

Nere Salbatzallearen
Txit Biotz maitea!
Partu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

3. Egiten du Billera santu onek, artarako siñalatua daukan Elizan, bakoitzaren lenengo jaiegun edo igandean diakinde edo funtziotxo bat, zeñak, Jauna-patenterekin, ta sermoita guzi, ordu-bete gutxi gora beera iraun oi du. Eta ill bakoitzaren lenengo domeka edo jayean konfesatu ta komulgatzea, Aita Santuaren gogorako erregutuaz, bere kongregante edo Billerakoai enkargatzen diye; orrela egiñarekiñ agindua daukaten induljenzia edo barkamendu ona irabazi dezaten; eta ala egiaz, beren artean oitura eder au gordetzen dute.

4. Baditu gañera Billera onek beste eginbide santu asko, nola diran, Biilerako edo kongregante ziranentzako Mezak kanterazitzea, urtean bein



Meza nausi bat esanazitzea, aurrez edo ondorean Jesusen Biotz Sagraduari bederatzurrrena egiten zayola etc.

5. Jakiñ bear da ere zearo ta garbi, Billera Santu onetako betebearrak eta egiñgizunak ez dutela iñolako moduz *berenez* obligatzen edo beartzen pekatu ez larri ta ez benialtxo baten ere azpian, eta ala, bertan izkribatua dagoanak, ez dio bere konzienziari kalterik eta akatz pitiñ bat ere egiten, gauza bat edo beste utzi arren, eta oandik geyago dana, *berenez* ezta guttia oso utzita ere.

6. Jesusen Biotz Sagraduaren Billerakoak irabazi al ditzageten induljenzi edo barkamen osoak bi moduzkoak dira; batzuek irabazteko naikoa da, ezarritzen dan obra ona egitea, ta konfesatu, komulgatu eta Aita Santuaren gogorako erregutzea.

Irabazten dira aurrengoak, zeñak baidiran Purgartorioko animai ezarrikorrek, onako egun betan:

1. Ostegun Santuz.
2. Pistuera edo Erresurrekzioko Pazkoa Igandean.
3. Aszensio-jayan edo Jesukristo G.J.en zeruratze egunean.
4. Eguarri-egunean.

5. Ama Birjiñaren pesta-egun Sortzeguziz Garbiko, Berri-on edo Anunziazioko, Eliza-sartze edo Purifizio, eta Jasoa edo Asunzio-koe-tan; Santu Guztien Jayan, eta Anima bedeinkatuen oroipen egunean; San Joseren, San Pedro ta San Paulo Apostoluen, eta San Juan Bautista Ebanjelariaren egunetan: jakiñaren gañean ordea, esan dan Eliz-bisitatzea eziñ bada egin, gaisotasun, miñantz, edo beste eragozmen arrazoizkoren bate-gatik, konpesoreak seinalatzen dion obra onen bat egitea naikoa ta orobat dala, induljenzi oriek irabazteko.

Irabazten dira bigarren barkamen edo induljenzi osoak egun oyetan.

1. Billeran sartuera egiten dan egunean.
2. Jesusen Biotz sagraduaren pesta-egunean.
3. Ill bakoitzaren leenengo ostiral edo Igandean.
4. Ill bakoitzaren egun bat edozeñean.

5. Irabazten dute ere barkamendu osoa eriotzako zorian, benetan damaturik, Jesusen izen gozoa esaten edo deitzen dutenak, dala min-gañez, dala, ori eziñean, biotzez edo gogoz.

Entero asko dira Billerazaleai agindurik dauden barkamen partezkoak, eta era askotara iraba leizkeanak. Oetatik bata da irureun eguneko barkamendua; zeña irabazten da erreztatuaz iru *Gloria etc.* goizean, eguardian eta illuntzean Irutasun edo Trinitate guziz Santuari, Ama Birjiñari bere

Zerueta-rako Jasoa gloriatzkoan egin zizkan doay ta graziak-gatik eskerrak emateko.

Gañera irabazten da barkamendu osoa, anima bedeinkatuai ezarri-garria, Jesusen Biotz Doatsuaren pesta-egitean Eliza, Kapilla edo Erre-gutegiren baten, pesta-egunean bertan, eta orobat sei ostiral edo Dome-ka aurrekoetan, toki santu hura bisitaturik; ta konpesatu, komulgatu eta Aita Santuaren asmorako erreguturik.

Billera santu onetan sartzeko eskaera

Ni... Jesukristo gure Jaun, gugatik gurutzean ill zanaren, eta bere Biotz irazeki, Aldareko Sakramentu guziz-Santuan amorioz gugatik sutu-rik dagoanaren gloriya ta omena geyago ta geyago aurrerazitzeko, eta amoriozko ezkutamen onetan egiten zaizkan bidegabekeriak ordaiñtzeko eta desiraiñtzeko; bat egiten naiz Billera Jainkozko onetan alkarturik dau-den guziakin parte artu nairik ere, berari emanak diran barkarnen santue-tan, eta goza nairik bertan egiñ oi dan onezpirituzko guzti guztiaz nere bekatuen ordañean eta Purgatoriko animen sufrajiorako.

Ar itzatzu, Jesus nerea, zere Biotz donean Jaungozko batzarkida onetan batutako danak, zure maitetasun Jaungoizkoan irazekia izan dite-zen, eta zere agindu santuak ta beren bizimoduko betebearrak oso-oso gorde ditzaten. Amen.

Goizeroko eskaera

O Jesusen Biotz guztiz maitagarria! Zereganatzen dizut egun onetan nere biotzaren erdi-erditik sortutzen zaidan leenengo arnasa au; erregu-turik ziñez eta menaz, diña zaiteala arren zuzentzeaz gaur nere gorputz eta animako egite guziak; zeñak obetu eta garbitu ditzala zere Biotz oso gozatsuak, zereakin bat egiñ ta eskañirik, sekula guziko alabanzan, zere Aita Betikoari. Ala izan dedilla.

Lotara aurreko otoitza edo orazioa

O Jesusen Biotz guztiz gozoa! Ematen dizkitzut humillkiro zere kontura gau onetan nere biotz ta gorputza, zeregan gozatsu atsedan deza-



ten. Baña, nola nere lo-bitarte onetan eziño zaitudan alabatu, alako moduz zerorrek ordeztu nazazu, non, zenbat aldiz nere biotzak dardaratzten duen, anbat bider Irutasun guziz Santuari nigatik alabanzak eskeini diozkatzun; eta zenbat asnasa artzen ditudan, anbat eskeronezko emanaldi ta amore-irazekizko sentiera beraganako izan ditezen. Ala gerta dedilla.

Jesusen Biotz guziz Santua desiraintzeko Egintza

Jesus gozo, Salbatzalle maitagarria, gañezka egiteraño onginai miragarrienaz, Aldareko Sakramentuan gurekin gelditzera diñatu zeradena! Or bertan ezagutzen zaitugu gure Jaun eta Jangoiko soberanotzat. Adoratzten zaitugunen deratasunezko sentimendu, obeditze uzkur, eta humiltasun ondorik-gabeenekoarekin, eta Sakramentuko idurien estalpean ezkutaturik, zere Biotz Sagraduak agertzen dizkigun amore ta biotz-beratasun azken-gabeagatik, milla ta milloi esker biotz-biotzetik ematen dizkitzugu. Ay Jauna! penaz ta naigabez ososamiñdurik gizonak dizuten tratamendu gaistoaz eta guk gerok izan dizugun esker-beltz eta leyaldez; nai degu, zere Majestade Jainkozkoaren aurrean auzpezturik, egintza onentxen bidez, guzien aurrean, amodiozko Sakramentu adoragarrioren kontra, leen egin diran, ta aurrera egin leizkean txarkeri, ezbear, donauslekeri, ta gogortasun danen ordaintze agiriko ta otsandiko bat eman. Damu degu, Jauna, dizugun begirune gutxiaz; eta gero zukanako epeltasun ta dollorkeriaz, O Jesus guztizgozo ta gure Erredimitzaile txit maitagarria!... Aparta itzatzu, Jauna, zere begiak gure gaiztakerietatik, eta zure betiko karidadearen gar-bizi irazekietan gure biotzak, Aiñgeru-Serapiñenak bezela, urtutzea iguzu; noizbait merezi dezagun zere graziarekin Zu ikustea ta gozatzea, eta Santuekin batean zeruan betikotasun guzian zure alabantzak kantatzea. Amen.

Jesusen Biotzaren iduriren baten aurrean egunero esan edo egin bear dan eskeintza

Nik N.N. esker-onekoa izan naitzatzun eta nere deslealtasunak ordaiñtzeko, eskuratzen dizut nere biotza, eta ematen naitzatzu oso-oso

zerrori; O nere Jesus maitagarria! eta zere graziarekin, egundaño aurrera-koan ez pekaturik egiteko asmoa artzen det.

I. oarkera. Egunero Jesusen Biotzaren iduriren baten aurrean Eskeinza au erreztatzen duenari, egindu ziozkan Aita Santu Pio VII garrenak eun eguneko induljenzi edo barkamen partezkoa eguneroko; eta barkamen osoa illeroko, edo illean beñ irabazi leikeana, konfesaturik eta komulgaturik, eta Jainko G. Jaunari Aita Santuaren gogorako eskaturik.

II. oarkera. Beste orrenbeste barkamen, Purgatorioko animai ezarri leizkeanak, irabazten dira, Jesusen Biotz Eriotzaratuari, egunero iru aldiz ekiten zayon Eskari urrengo onegatik... (Pio IX 1850).

Eskaria Jesusen Biotz eriotzatuari, egunero iltzen diranen alde

O Jesus guziz errukitsua, ta animen maitatzalle! Zere biotz txit Santuaren eriotzako oña zeakgatik, eta Zere Ama Sortzez oso-garbiaren naigabeagatik, erregutzen dizut, arren garbi ditzatzula zure odolean, oraiñ iltzeko zorian dauden, eta gaur ill bear duten mundu guziko bekatariak. Ala izan dedilla.

Jesusen Biotz eriotzaratua, erruki zaite eriyetzaz.

Ori bera latinez

OREMUS

iO clementissime Jesu, amator animarum! obsecro te per agoniam Cordis tui Sanctissimi, et per dolores Matris tuae Immaculatae, lavain sanguine tuo peccatores totius mundi, nunc positos in agonia, et hodie mortuos. Amen.

Cor Jesu in agonia factum, miserere morientium.

Jesusen Biotz done-sagraduaren honran, izenean eta alabanzan, jayerazko Koroya edo Erregualdia

V. Deus in adiutorium meum intende, etc.



LENENGO ALDIA

O nere Jesus, oso maitagarria! Pensatzen ta gomuntatzen adi naizela zere Biotzaren gañean, eta ikusirik dala bekatarientzako onginai ta gozotasun utsa; neronena senti det alaitzen zaidala, eta zeregandik ondo artua izango dalakoaren usto oso-osoak betetzen du. Ai zein pekataria, nere zorigaiztoan, izandu naizan!... Baña orain, San Pedro eta Magdale-naren antzea, da muturik egiaz, gorrotatzen ditut nere pekatu aín negar-garriak batez ere zure kontra diralako; o nere ontasun gustizkoa...! Bai, bai, idazu arren barkazio osoa; zere biotz agatik eskatzen dizut; bada milla bider ill nayago det, zu ofenditu baño; eta bakar-bakarrrik zu amatzeko ta maitatzeko bizi nai det. Amen.

Aitagurea, ta bost *Gloria* Jesusen bost zauri edo lлага eta Biotz sagra-duaren honran ta alabanzan.

Nere Salbatzallearen
Txit Biotz maitea!
Gartu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

BIGARRENA

Bedeinkatzen det, O Nere Jesus! zure Biotz guztiz humilla, eta esker milla, Jauna, zeren, bera nere ispillu ta ejenplotzat ematearekin, ez baka-rrik zerorri jarraitzeara portizki eragiten didazun, ezpada gañera zere humillatze ainbesterekin nere bidea erraztu ta launtzen didazulako. Zein zoro ta esker-beltzekoa izan naitzazun...! Ai zenbat bideutsagite egin ditu-dan...! Barka egidazu arren. Ez geyago andinaitasunik, ez arrokeriarik; bada segi nai dizut biotz humillarekin humiltazunezko bideetan, eta ala iritxi pakea ta salbazioa. Idazu bada indarra ta graziazko kementa, eta bedeinkatuko det betikotasun guzian zure Biotza. Amen.

Aitagurea ta bost *Gloria* &.

Nere Salbatzallearen
Txit Biotz maitea!
Gartu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

IRUGARRENA

Arritzen nau, O nere Jesus! zure Biotz aín sufritzalleak, eta eskerrak berriro, utzi ziskigutzun eramankizunik andienetako ainbeste ejenplo miragarrigatik. Zenbat damutzen zadan alperrik oraindano arpegira eman didaten txapelkerizko maña ta sunaz, zeñak egiten zidan eziñ eramatea desgustorik txikienik ere! Ai nere Jesus maite-maitea! ezarri egiozu arren nere biotzari amore irazeki ta iraunkorra naigabeakganako, eta gurutze, ildura eta penitenziaganako; Kalbariora jarraitzen dizudala, igaro nadiñ Zerorrekin gloriara, Paradisuko pozaldi beti-betikora. Amen.

Aitagurea bost *Gloria* &.

Nere Salbatzallearen
Txit Biotz maitea!
Gartu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

LAUGARRENA

Ikaratzen naiz, O Nere Jesus! zure Biotz oso-malso eta gozatsuauren aurrean, ikusirik zein beste modukoa dan nerea, Kontrarik txikienarekin, keñu edo itz kontrako edo zeñekin, bereala sentikor egiten naiz, eta erren-kuraturik purrustaka banabill, eta asarratzeraño kejatzen naiz. Ai, Jauna! barka idazu arren nere eziñei amana, eta idazu grazia zure rñalsotasun aín irmeari edozein gorabera ta kontrakotan aurrerakoan jarraitzeko; pake santu ta iraunkor batez modu onetan beti goza dezadan. Amen.

Aitagurea bost *Gloria* &.

Nere Salbatzallearen
Txit Biotz maitea!
Gartu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

BOSTGARRENA

Merezi du, bai, O Nere Jesus! zure Biotz oparoak sekula-guzian ala-batua izatea, eriotzaren da Infernuaren garaitzalea dalako. Orain, Jauna, egundano baño geyago lotsatzen naiz, hañ kementa-gabea ta txaldana nere biotza ikusteaz, bada erozer zomorro-antzekin bildur da bereala. Ez geya-go kemenezik, O Nere Jesus! Idazu, Jauna, bear dedan indarra, ausardiya, mundu onetan peliaturik eta baza irabazirik, alaitazunez gero zerorrekin zeruan garailari bizi nadiñ. Amen.



Aitagurea bost Gloria ✠.

Nere Salbatzallearen
Txit Biotz maitea!
Gartu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

**Zuzentzen geradela oraiñ
Ama Birjiña-ganonz eta
bere serbitzura oso berriko
ematen gaitzaitzkala,
eta bere Biotz amatsuagan
konpianza bete-betearekin
esan deyogun**

Zure Biotz oso-gozoaren doay eder guztizkoakgatik, iritxi idazu, o Jainkoaren ta nere Ama Birjiña Maria! jayera egiazko sendo bat zere seme Jesusen Botzsagraduaganako: au nere pensamentu ta sentiera guziakiñ sarturik, bete ditzadan ondo nere eginbear danak, eta biotz alaiyarekin beti eta batez ere gaur, Jesukristo gure Jauna serbi dezadan. Amen.

Oarkeru. Biotz damuonezkoaz Jesusen Biotz Sagraduaren honran koroï edo erregualdi oek ondo errezatzearren, emanak daude irureun eguneko barkamen edo induljenziak. Eta egunero errezaturik irabazi leike illean beñ barkamen-oso, illaren egunen batean, orretarako konfesatu ta komulgatu ezkeru, eta erreguturik Aita Santuaren asmo santuetarako. Barkamendu edo induljenzi oek Purgatorioko animai ezarri leizkeanak dira-de.

**Jesusen eta Mariaren
Biotz guziz Santuak alabatzeko
bederatzi eginbide edo opizio**

Obeto kontu piska batekiñ Zeruko bederatzi Aingeru-taldean antze-
ra ta leyan Jesusen eta Mariaren Biotz guziz sagraduak honratzeko, mai-
tatzeko ta alabatzeko; persona on askok bederatzi lagunuen artean bete oi

dituzte, bakoitzari dagokion eran, emen ipiñirik dauden bederatzi langai
edo eginbide labur. Oek txandaka edo txotx eginda artzen dira ill bakoit-
tzaren leenengo ostiral goizean, edo orobat aurrean; eta bakoitza, irten
zayon eginbide txoail artan zintzo betetzen sayatzen da Jesusen ta Maria
Birjiñ Amaren amorez, ta biyen gloriarik andienarako.

LENENGO LANBIDE EDO EGITEKOA:

ERAGILLEA

Eragilleak, batekiten dala gogoz ta biotzez Tronuak edo Jargoyak deritzaten. Aingeru-taldearen alabanzaldiakin, sayatu bear da Jesusen eta Mariaren Biotz Sagraduenganako jayera edo debozioa or-emen zabaltzen ta egozten bere ejemplo ta izketa onakin, eskaturik ere Jaungoikoari bere erregualdietan, barreatu dedilla jayera aiñ eder ta santu au.

Bere bertutea bada izango da, itz onakin eta batez ere obra onakiñ lagunai ejemplo ta espillu bezela izatea.

Jaiegunean egingo die Jesus Sakramentatuari ta Ama Birjiñari bisita edo ikustaldi bat, iru *Aitagure* ta iru *Salbe* errezatuaz; eta orobat egunero errez al badu, ta bere beargayak uzten badiye.

Egunero jaikitzean oiratzean eta noitzean beñ egun bitartean esango die:

Jesusi

Nere Salbatzallearen
Txik Biotz maitea!
Sutu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

Eta Ama-Birjiñari

Birjiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetik.
Pekatu galgarri ta
Lagun gaiztoetatik.

BIGARREN EGITEKOA:

ZUZENTZALLEA

Zuzentzalleak, bat egiñik gogoz ta biotzez zeruko Aingerutalde Almentsuen edo Potestadeen izena daukaten erregu ta alabanzakin, eska-
tuko dio Jaungoikoari gizonak yandi Sakramentu txit Santuan artzen



dituen ezbear, txarkeri, ta begiraezen barkazioa, ta batez ere, Komunio txarrena.

Bere bertutea izango da, karidadearen, isiltasunaren, ta zintzotasunaren kontrako utzegiterik txikienik ere ez egiteko, kontuz ta arretaz ibiltzea.

Astelenean, eta egunero al badu, Sakramentu guziz-Santuari ta Ama-Birjiñari bisitaldi bat beintzat egisigo die, fedezko itxedomenezko eta karidadezko egunitzak esanaz eta Birjiñaren letaniak errezatuaz.

Egunero jaikitzean, oiratzean eta noizean bein egun bitartean esango die:

Jesusi

Nere Salbatzallearen
Txik Biotz maitea!
Gartu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

Eta Ama-Birjiñari

Birjiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetik.
Pekatu galgarri ta
Lagun gaiztoetatik.

IRUGARREN EGITEKOA: ADORATZALLEA

Adoratzalleak parte arturik biotzez Aingeru-Jabe edo Dominazioen alabazetan batez ere irutasun guziz Santuari Jesus eta Mariaren Biotzak beti ematen ai diranetan, egongo da Eliza, Kapilla eta beste leku sagra-duetan arkitzean, arreta ta begirunerik aundienarekin nunai Jainkoaren aurrean gaudela oroiturik.

Bere bertutea izango da modutsua ta egokia, ta batez ere, leku santuetan begirunetsua izatea.

Asteartean bisitalditxo bat edo beste Sakramentu txit Santuari ta Ama-Birjiñari egingo die, eskatzen diola Andre Maria Birjiña Sortzez oso Garbiari bere Seme Jainkozkoa biotz prestu ta garbiz beti maitatu ta bear bezeia adoratzeko grazia ta laguntza; errezaturik bien Biotz txit Santuai *iru Aitagure* ta *iru Abe-Maria*.

Egunero jaikitzean, lotakoan ta beste aldiren batzuetan esango die:

Jesusi

Nere Salbatzallearen
Txik Biotz maitea!
Gartu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

Eta Ama-Birjiñari

Birjiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetik.
Pekatu galgarri ta
Lagun gaiztoetatik.

LAUGARREN EGITEKOA: MAITAZALEA

Maite edo amanteak aingeru-Serapiñ edo Sutuekin bat egiten dala sayatuko da al duenez ordaintzen bere amodiozko egiteakin eta maitetasunarekin, gizonen epeltasun eta atzeratasuna, Jesusen Biotzak dien amore neurrigabeenako, ta batez ere Jainkoari konsagratutako personena; erreguturik sutu ditzala biotz guziak, eta are geyago Kongregazio edo Billera-ko lagunena bere amorean.

Bere bertutea izango da lagun-urkoakganako amore sendo iraunkorra, ondo begiratuaz guziari barkatuaz biotzez gaitz-egin edo sentierazi digutenai, adizkitzera sayatubaz etsay edo gorroto diranak, on-eginaz al duenez beartsu, gaiso edo premian dagoanari &.

Asteazkenean bisitaldi bat edo beste Sakramentu txit Santuari ta Ama-Birjiñari egingo die, erreguturik pistu dezalela mundu guzian Jainkoaren amore su-garra.

Egunero jaikitzean, oiratzean eta noizean bein egun bitartean esango die:

Jesusi

Nere Salbatzallearen
Txit Biotz maitea!
Gartu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

Eta Ama-Birjiñari

Birjiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetik.



Pekatu galgarri, ta
Lagun gaiztoetatik.

BOSTGARREN EGITEKOA:

IKASLEA

Ikasleak, Aingeru-jakintzu edo Kerubiñ-ekin batean, eskatuko dio Jainko Gure Jaunari gizon guzei isuri degiela bere egiazko ta zeruzko jakintzaren ugaritasuna, salbazioko bidea ikasi ta jañei dezaten; eta berezat Jesus ta Mari-gandik esanak bezela artuko ditu, ta gomuntatuko ditu Salbatzallearen itz oek: «Discite á me quia mitis sum et humilis Corde». «Ikasi ezazue nigandik, zeren malsoa naizen eta humilla Biotzez...».

Bere bertutea izango da Jainkoaren itz-isill ta adierai ondo erantzutea arrokerirako grina menderatzea, eta besterekin egiaz humilla, otxana, ta biguñia izatea tratuan ta itzetan.

Ostegunetan Sakramentu txit-Santuari ta Ama Birjiñari bisitaldi bat edo beste egingo die, biotzezko malsotasun eta humiltasuna eskaturik, berezat, eta errezaturik *Kredoa* ta *Salbea* azkenean kontriziozko edo damuonezko aktoa egingo du.

Egunero... jaikitzean, oiratzean eta noizean beñ egun bitartean esango die:

Jesusi

Nere Salbatzallearen
Txik Biotz maitea!
Sutu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

Eta Ama-Birjiñari

Birjiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetik.
Pekatu galgarri, ta
Lagun gaiztoetatik.

SEIGARREN EGITEKOA:

JAUSKAÑIYA

Jauskañi dana, bertuteak deritzan Aingeru-taldearekin alkaturik biotzez, eta batez ere amoriozko Jauskañi Jesukristo gure Jaunarekin bategiñik, eskeñiko da Aita-Betikoari, ordaintzeko al duenez Sakramentuan ta

leku santuetan gizon guzien, batez ere berari konsagratuengandik artzen dituen txarkeri ta esker-gabetasunak.

Bere bertutea izan bedi, grina gaistoak ilduratzen ta eskuratzen aurretatzea; bere jenio ta andiusteari gogor egiñik, janean edo edanean neurritz ibillirik, gustoko gauza enbat besteri utzirik, begiai kontuaturik, &...

Ostiraletan Jesus ta Mariaren Biotz sagraduei bisitaldiren bat edo beste egingo die, desirañdurik Jainko Sakramentua, eta erreguturik bekariak ondu ta salba ditezen, errezaturik atzenean bost *Aita gure*, bost *Abe Maria* et bost *Gloria*.

Egunero jaikitzean, oiratzean eta noizean beñ egun bitartean esango die:

Jesusi

Nere Salbatzallearen
Txik Biotz maitea!
Gartu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

Eta Ama-Birjiñari

Birjiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetik.
Pekatu galgarri ta
Lagun gaiztoetatik.

ZAZPIGARREN EGITEKOA:

SERBITZARIA

Serbitzaria, Lenen-aingeru edo goi-aingeruakin bategiñik, emango zayo oso ta biotzez Jesukristo G. Jaunari, bere Jainkozko amore kateakin lotua egon dediñ, bera gure ongina ta maitetasunez Aldareetan aiñ gugaratua dagoan ezkeri; eskaturik bereganatu ditzala biotz guzi-guziak.

Bere bertutea izango da Jaungoikoaren borondatearekin berea bat egi-tea, obediturik bear bezela Jainkoak eratu dizkion nagusi, agintari, maisu ta buru dituenari.

Larunbat edo zapatuetan, albista edo bisitaldia egingo die Jesus ta Mariaren Biotz doatzuai Eliza edo leku santuren baten; eskaturik bereganatu ta lotu ditzatela gizonen biotzak Jainkozko amore-kateakin, aingeruekin zeruko libretasun betikora iritxi arte; errezaturik atzenik Sei *Aita-gure* sei *Abe-Mari* ta sei *Gloria*.



Egunero jaikitzean, oiratzean eta noizean beñ egun bitartean esango die:

Jesusi

Nere Salbatzallearen
Txik Biotz maitea!
Sutu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

Eta Ama-Birjiñari

Birjiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetik.
Pekatu galgarri ta
Lagun gaiztoetatik.

ZORTZIGARREN EGITEKOA: ESKALEA EDO ERREGUTZALLEA

Erreguzale edo *Eskaleak*, Alkar arturik Aingeruekin eskatuko dio Jainkoari isuri ditzala grazi ta ondasun ugariak bere ta besteen batez ere Bille-ra santuko iagunen biotzetara, gordeak izan ditezen gorputzeko ta animako perill guztietatik.

Bere bertutea bildura ta modutasuna izango da begiratzean, ibiltzean eta gorputzeko mugimentu danetan.

Igandi edo *domekan*, bisitatxo bat edo beste Sakramentu txit-Santuari ta Ama-Birjiñari egingo die iltzeko zorian arkitzen diranakgatik, eta Purgatorioko animagatik erregutzen duela; eta errezatuko ditu iru alditz *Aita-gurea*, *Agur Maria* eta *Gloria*.

Egunero jaikitzean, oiratzean, eta noizean beñ egun bitartean esango die...

Jesusi

Nere Salbatzallearen
Txik Biotz maitea!
Sutu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

Eta Ama-Birjiñari

Birjiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetik.

Pekatu galgarri, ta
Lagun gaiztoetatik.

BEDERATZI-GARREN EGINBIDEA: ZELATARIA

Zelataria, bederatzi Aingerutaldea batez ere Lenenkoi edo Prinzipa-duak erreguz bereganaturik sayatuko da ta alegiñ egingo du, Jesus ta Mariaren Biotz Sagraduekiko jayera edo debozioa zabaltzen, ta besteai erakusten ta ezarritzen, lagun urkoen ere utsegiteak, era ta egoki al badu, kendurik gauz oetan...

Bere bertutea izango da, inork ere Jainkoa ofendi ez dezan arreta, zale, gogo ta eresi bizitza andi bat.

Jaiegunean, eta astegunean ere egoki balezake, bisitalditxo bat edo beste Jesus Sakramentuko ta Ama Birjiñari egitera joango da eresi ta zelo andiaz; erreguturik gorde ditzala arren Jangoiko G. Jaunak bere adiskide-tzan erruezak eta justuak, eta oneratu ditzala bekatari triste-errukarri gajoak. Onetarako bost *Aita-gure* ta bost *Abe-Maria* errezatuko ditu.

Egunero jaikitzean, oiratzean eta noizean beñ egun bitartean esango die...

Jesusi

Nere Salbatzallearen
Txik Biotz maitea!
Gartu ta geitu idazu
Beti zu amatzea...

Eta Ama-Birjiñari

Birjiñ-Ama, arren gorde
Nazazu gaitzetik.
Pekatu galgarri ta
Lagun gaiztoetatik.

ELIZAN SARTZEAN ETA ANDIK IRTETEAN ESATEKO OTOITZ-LABUR EDO ESKARITXOAK

Jesus ta Mariaren
Biotz dontsuak,



Eizkigutzue gureak
Zuen antzekuak.

Bestea

Jesus ta Mariaren
Jainkozko Biotzak,
Urtu itzatzute amorez
Gureen izotzak...

A. M. D. G.

BIGARREN PARTEA

JESUSEN BIOTZARI KANTA ETA ALABANZAK

LENENGO KANTAK

*Eztago zerura
Beste biderik
Jesusen Biotza
Bezelakorik.*

Zeruko gloria
Grazia eginik,
Lurrera etortzen da
Biotz artatik.

Eztago zerura...

Aita Betikoa dago
Begira goitik,
Bere ispillu eder au
Ikusteagatik.

Eztago zerura...

Espiritu Santu.
Guzia andik,
Aitak ematen du
Semeagandik.

Eztago zerura...

Jaungoikotasuna
Dago or jarririk,
Biotz ori Jargoi
Eder eginik.

Eztago zerura...



Zerua ta lurra
Daude arriturik,
Biotz eguzki eder
Argi orregatik.

Eztago zerura...

Birjiña Amak ez du
Beste atsegiñik,
Biotz onez baño
Andizigorik.

Eztago zerura...

Aingeruak daude
Zeru guztitik,
Biotz eder oni
Onde iritzirik.

Eztago zerura...

Jesusen Biotza
Begiraturik.
Guretzat ez dauka
Errukia baizik.

Eztago zerura...

Paradisu au dauka
Beti zabalik,
Pekatarientzat
Itxi gaberik.

Eztago zerura...

Naizute, Kristauak,
Sartu bertatik?...
Zerurako ez dago
Bide obeagorik.

Eztago zerura...

Ate au idiki ta
Gu zartzeagatik,
Sakramentu orretan
Dago itxirik.

Eztago zerura...

Gau ta egun daukagu
Beti bakarrik,
Jatxi barrez ere
Guri zerutik.

Eztago zerura...

Gurutze santua
Dauka gañetik,
Arantzak ta llagak
Alde guztitik.

Eztago zerura...

Su-gar amorezko
Naigabezkotik
Konsolatzeko inor
Ez du lagunik.

Eztago zerura...

Amorez ta penaz
Ta oñazez illik
Nola daukazute
Orren azturik?...

Eztago zerura...

Beraz ez du izango
Alibiorik,



Gure biotzak bere
Egin bagerik!

Eztago zerura...

Fedez ta amorioz
Biotz guztitik
Jesus geratzen da
Oso alaiturik.

Eztago zerura...

Ori eskatzen digu
Bere aldaretik;
Billa dezagula
Gure onagatik.

Eztago zerura...

Iger dabillena
Jesus-engandik
Gero ez du izango
Zeruko aterik.

Eztago zerura...

Ez dago munduban
Bezte biotzik
Gureak artzeko
Bere parerik.

Eztago zerura...

Biotzen Jabea!
Arbitz emendik
Guzien biotzak
Bereagatik.

Eztago zerura...

Or iduki bitza
Bere aldetik
Zera eder orretan
Onde gorderik.

Eztago zerura...

Adora dezagun
Gu irabazirik
Biotz Santu ori
Orain ta beti. Amen.

(A. Kardabera^z-enak)

BIGARREN KANTAERA

Jesus onaren Biotz maitea!
Gauza bat arren indazu;
Zugandik inoiz aparta ez nadin,
Zuregan artu nazazu.

Eziñdu ez inork esango, Jauna,
Eztakiela bidea:
Soldaduaren lanza gogorrak
Idiki ezkeror atea.

Kanpoko lore guziak baño
Ederragoa izanik
Zergatik, nere lore ederra,
Zaude arantzaz beterik?

Alde guztitik artzen zaituzte
Arantzak eta gurutzeak;
Oyek dirade lur gaizto onek
Eman dizkitzun loreak...



Idikirikan zure Biotza,
Sartu nai nazu Zeruan:
Zeru orretan nai det nik bizi
Orduan, eta puntuan.

Sakramentuan katibu daukat,
Ai! nere Erredentorea
Amorioaz: Ezta besterik
An preso daukan katea.

Santuen gozo, Santuen sari,
Santuen zori-on guzia,
Biotz onetan gorderik dago
Santu guzien gloria.

Amorioaz amorioa
Pagatzen bada munduan,
Zori onean ordaña naizu
Nigandik, Sakramentuan.

Pena bat beti idukiko det
Len Zu ez ezagutuaz:
Atzera-penak aztuko ditut,
Aurrera Zu billatuaz.

Orañ daraño ibilli banaiz
Gurutzeagandik igesi:
Gurutze orretan josirik nai det
Betiko zurekin bizi.

Egondu bada nere biotza,
Bizi guztian idikia,
Zu artu eta idukiko det
Beste guzienzat itxia.

Au da, Jabea, ill arteraño
Ematen dizudan itza;
Au ausi baño lenago, Jauna,
Galduko nuke bizitza.

(A. Kardabera^z-enak)

JESUSEN BIOTZAREKIKO BEDERATZI LANBIDEAK ZORTZIKO ETA LAUKOETAN

Lenengoa.— I. ERAGILLEA

O Biotz Jainkozko ta
Maitagarriena!
Ai! Zu amatzen garturik.
Neroni lenena,
Eskeñi albanizuke
Danik sutuena,
Gizon guztiak duten
Amoreik piñena!...

Arren, lagun zazute,
Jargoi Aingeruak,
Su-gar oyek ditezen
Izan zabalduak:

Ta egizu zuk: Jesusen
Txit Biotz maitea!
Zure ainbeste mesedez
Gizona az aaztea.

II. ZUZENTZALLEA

O ze miñantz ta pena
Nere Jesus ona!
Bada aiñ gutxi da oroitzen
Zu amateaz gizona!
Dirudi ofenditzeko
Dagola itxodana
Zure Jainkozko Biotz
Aldarean dagona!



Aingeru-Almentzu ederrak!
Lagun zadazute:
Damu onezko negarrez
Urtu nazazute:

Bai, Jesusen Biotza,
Barka bear diguzu:
Beti gaurtik aurrera
Zureak gaituzu.

III. ADORATZALLEA

Jesusen Biotz eder
Animen Artzaya,
Diguzuna guztioi
Betiko onginaia!
Gu amorez zututzeko
Zerade ardagaya;...
Geitu bedi arren gudan
Zu adoratua naya.

Adoratu ditzagun,
O Aingeru-Jabeak,
Jesusen Biotzaren
On paregabeak.

Agur bai, Jesus, agur:
Zure Biotzean
Nai degu bizi orain da
Betitasunean.

IV. MAITATZALEA

Nola ez, Jesus, zatitu
Naigabez biotzak
Zuganonz ikusirik
Gizonak aiañ otzak!
Jesus! zure mesedeai
Aiañ gerade arrotzak

Ze, amorez gartu bearrez,
Beti gaude izotzak!...

Bai, Jesus, egingo det
Alegiñez lana
Bildutzeko gizonen
Biotzak zugana.

Lagundu zaiguzute,
Serapiñ Sutuak,
Sututzeko Jainkoaren
Amorez munduak.

V. IKASLEA

Dezu, Jesus, Biotza
Zeru ta lurtean
Parerikan gabea
Jakintasunean!

Aurrerazi gaitzatu
Zeruko bidean,
Eta egi betikoai
Zintzo jarmitzean.

Aingeru-Jakintziak,
Lagundu erregutzen,
Ta Jainkozko jakintzaz
Mundua argitutzen.

Erreguz alkarturik,
Lan egin dezagun,
Jakiñezenak ere
Zerura ditzagun. Amen.

VI. JAUSKAÑIYA

O Jesusen Biotza
Gizon maitakorra,



Zeñagati artu dezun
Eriotz gogorra!
Nai dizut guztien orde
Nik pagatu zorra,
Eskañirikan beintzat
Nere biotz dollorra...

Zure Biotz erdiko
Jauskañi ederrakiñ
Bat egiten naitzatzu
Zeru-Bertuteakin.

Barkatu deigula arren
Aita Betikoak,
Yori isuririkan
Grazi Jainkozkoak.

VII. SERBITZARIA

Amoriozko kates
Gugatik loturik
Sakramentuan zaude,
Jesus, humildurik.
Nola gu ez gera egongo
Zurekin pozturik?...
Eta, ez daude guztiyak
Zureganaturik?...

Goiangeru galayak,
Lagun zaiguzute,
Jainkoarenak biotzak
Izan bear dute.

Zeregana gaitzatzu
Bai, Jesus maitea;
Libretasun onena
Da zu serbitzea.

VIII. ERREGUZALEA

Jesusen Biotz gozo,
Erruki utsa bera,
Gure amorez jetxia
Zerutik lurrera!
Nora egatu gureak
Ezpada zurera,
Aingeru ta gizonen
Gordairu ederrera?...

Zuregana gatoz bai
Grazi guztien eske;
Aingeru goardakoak
Lagun zaiguzute.

Arren barkazioa,
Jesus, biziyeztat,
Eta Purgatokiyan
Dauden animentzat.

IX. ZELATARIA

Biotz guzti-guztien
Euzki ta ispillua,
Gure amorezko garrez
Labe goritua!
Ai, Jesus, gar oyekin
Baneuka mundua
Oso zugaratzeko
Dana inguratua!...

Besteak zuregantzen
Zelatari piña,
Bai, Jesus, egingo det
Gaurtik alegiña:

Aingeru Lenenkoiak,
Neri arren lagundu,



Jesusen gloria dedin
Zabal munduz-mundu. Amen.

JESUSEN BIOTZ SAGRADUARI BESTE KANTALDI BATZUEK

O Biotz Santu
Maitatiya!
Zu gure Errege
Jaun aundiya...

Guazen, Kristauak,
Ain da Munduan
Nola Zeruan
Agurgarri...

Guazen guk ere
Adora zangun
Ta alaba zangun
Biotz ori...

O Biotz Santu...

Suturik zaude
Beti gizonen,
Naiz gaiztoenen
Amorean.

Zergatik, Jauna
Su-gar biziak
Dauzkatzu itxiak
Biotzean?

O Biotz Santu...

Zu zera, Jesus,
Maite maitea,
Nere Jabea
Ta Jainkoa.

Natorkizu ni
Naigabeturik,
Ta oso humildurik
Zere aurrera.

O Biotz Santu...

Zabal itzatzu
Gar eder oyek,
Lurreko loyek
Kiskaltzeko.

Begira, Jauna,
Gaistoen lana;
Ai dira aldana
Gaitzerako...

O Biotz Santu...

Zure amoreek
Nola du eraman
Munduak da aman
Oztasunak?...

Ezpañak beinzat
Erruki zaita
Lur gure maite
Zuk emanaz.

O Biotz Santu...

Atoz onera
Zere jargoya
Zerurakoya
Paratzera.

Zu zera Errege
Nausi ta Jabe;



Bizi zu gabe
Gu eziñ gera.

O Biotz Santu...

Zu, Biotz gozoa,
Zera Aingeruen,
Eta Santuen
Alegriya...

Noiz ote dizut
Nik ezarriko
Beti betiko...
Bai! begiya!...

O Biotz Santu...

Adiskidetzaz
Niganatzera
Zere Biotzera
Natorkizu.

Sar nazazu erren
Barrunbe oyetan
Ta eunki guzietan
Zurea nazu.

O Biotz Santu...

Ortxe egarria
Kendu nezake...
Nork au dezake
Zuk ez bestek?...

Bai, nere Jesus,
Da nai nerea
Bizi ta iltzea
Zure amorez...

*O Biotz Santu
Maitatiya!
Zu gure Errege
Jaun aundiya...*

II. KOMUNIOA EMAN DENBORAN KANTATZEKO ITZNEURTUAK

Zure Gorputz txit Santua
Izan bedi gure lagun,
Berekin aurki dezagun
Bildur gabe Zerua.

Zure Gorputz txit Santua
Indarra da makalenzat,
Janaria sendoentzat,
Da bekatarien ona.

Zure Gorputz txit Santua
Da gozo paregabea,
Da osasuna ta pakea,
Da animaren bizitza.

Zure Gonputz txit Santua
Da usai-eder Zeruzkoa,
Garaitzen duena nardoa
Eta Taborko lora.

Zure Gonputz txit Santua
Da biotzen bizileku,
Non arkitzen duten leku
Zu amatzeko, o Maitea!

Zure Gorputz txit Santua
Autatuenzat dezu abiya,
Nun duten bizigarriya
Zure maitetasuna.



Zure Gorputz txit Santua
 Jan dezagula eriotzan,
 Ill arte zere amorean,
 O Jesas maitatsua!...

III. ATZEN-AGURRA JESUSEN BIOTZ SAGRADUARI

KORUAK

Agur Jesusen Biotza
 Gure bizilekua!...

ERRIYAK

Bekar, Jesus txit laztana,
 Bekar bendiziyua.

KORUAK

Agur Jesusen Biotza
 Gurutzez zamatua!

ERRIYAK

Bekar, Jesus txit laztana,
 Bekar bendiziyua.

KORUAK

Agur, Jesusen Biotza,
 Gugatik zauritua!

ERRIYAK

Bekar, Jesus txit laztana,
 Bekar bendiziyua.

KORUAK

Agur, Jesusen Biotza
 Gureaz jabetua!

ERRIYAK

Agur, Jesus txit laztana,
 Bekar bendiziyua.

A. M. D. G.